


Kaliza

Lorezila

Korola

Pistiloa

Obulua



1. Bizi-funtzioak egiteko gauza diren izaki bizidunaren atalik txikiena da...

- ☐ Zelula.
- ☐ Zuntza.
- ☐ Organoa.

2. Izaki bizidun guztien zelulek honako hauek dituzte:

- ☐ Horma, zitoplasma eta material genetikoa.
- ☐ Mintza, zitoplasma eta material genetikoa.
- ☐ Mintza, nukleoa eta horma.

3. Izaki bizidun batek daukan zelula-kopuruaren eta zelula horien antolaketa-mailaren arabera,

- ☐ Moneroak eta protoktistoak.
- ☐ Autotrofoak eta heterotrofoak.
- ☐ Zelulabakarrak eta zelulanizdunak.

4. Nutrizio autotrofoa horrela defini daiteke...

- ☐ Mantenugaiak berez sortzea uretik edo karbono dioxidoa bezalako gasetatik abiatuta.
- ☐ Mantenugaiak berez sortzea oxigenoa bezalako gasetatik abiatuta.
- ☐ Mantenugaiak izaki bizidun batzuekin edo haien zatiekin elikatuta lortzea.

5. Funtzio horri esker izakiek gorputz barruan eta gorputzetik kanpo gertatzen denaren aurrean erreakzionatzen dute:

- ☐ Erlazio-funtzioa.
- ☐ Ugalketa-funtzioa.
- ☐ Nutrizio-funtzioa.

6. Landare gehienek dituzte...

- ☐ Sustraiak, zurtoina, hostoak eta hodi eroaleak.
- ☐ Erraboilak, zurtoina eta hostoak.
- ☐ Errizoideak, zurtoina eta loreak.

7. Hodi eroaleek...

- ☐ Landarearen zurtoinean zehar doaz.
- ☐ Sustrai eta zurtoinean zehar doaz bakarrik.
- ☐ Sustrai, zurtoin, adar, eta hostoetako nerbiazioetan zehar doaz.

8. Fotosintesiaren bitartez landareak...

- ☐ Karbono dioxidoa sortzen du hondakin-gas moduan.
- ☐ Hondakinak sortzen ditu eta hildako hostoen bidez ezabatzen ditu.
- ☐ Oxigenoa sortzen du hondakin-gas moduan.

9. Sexugabeko ugalketan...

- ☐ Bi izaki, arra eta emea, ondorengoak sortzen dituzte gorputzen ataletatik abiatuta.
- ☐ Bi gameto izaten dituzte, arra eta emea, eta horiek landare berri bat eratzeko elkartzen dira.
- ☐ Landarearen zati bat landare nagusitik sortzen da ondorengoak sortzeko.

10. Fotosintesia hainbat gauzarengatik da garrantzitsua, adibidez...

- ☐ Atmosferatik kentzen du gure motorrek eta industriak sortzen duten karbono dioxidoaren zati bat.
- ☐ Atmosferatik kentzen ditu gure motorrek eta industriak sortzen duten oxigenoa.